



**EBAZPENA, 2016ko IRAILAREN 29koa, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA.  
HONEN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN ETA  
BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOETAKO PRAKTIKETAKO  
FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOAN JARDUNGO DUTEN KALIFIKAZIO  
BATZORDEAK IZENDATZEN DIRA.**

2016ko irailaren 8ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bitartez arautu da Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak 2016/2017 ikasturtean egin behar duten praktikaldia.

Aipatutako ebazpenan ezarritakoari, hots, praktikaldiak ebaluatu behar dituzten Batzordeen osaera eta horien argitarapena arautzen duenari, jarraituz,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten Kalifikazio Batzordeetako kideak izendatzea. Horien osaera ebazpen honen eranskinean agertzen da.

Bigarrena. Izendapen horien berri ematea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko interneteko helbideetan: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> eta <http://www.irakasle.eus>.

Hirugarrena.- Kalifikazio Batzordeetako kideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan abstentzioari eta ezespeneri buruz ezarritakoa aplikatuko zaie.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordeari, hilabeteko epean, argitara eman eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 29a.

KONRADO MUGERTZA URKIDI  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



## **ERANSKINA**

### **MAISU-MAISTREN KIDEGOA**

**Batzordeburua:** María Jose Morgado Matador

**Kideak:** Carmen García Gutiérrez  
Milagros Maguregi Jauregi  
Luis Mari Del Valle García  
Rosario Gracia Navarro  
Isabel Martín Erro

### **BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA**

**Batzordeburua:** Arantza Laca Mugarza

**Kideak:** Carmen Gallego Muguruza  
Ana María Prieto Berrio  
María Asunción Urmeneta Galfarsoro  
Sebastian Galdós Erriondo  
Jose M<sup>a</sup> Elvira Calzada